



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2018ko apirilaren 12a

43. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- Foru Lege proiektua, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzkoa. Aurkeztutako zuzenketak (2. or.).
- Foru Lege proiektua, irisgarritasun unibertsalari buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epea luzatzea (10. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzkoa.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduaren 130. artikulua ezarritakoa betez, agintzen da Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko Foru Lege proiektuari aurkezturiko zuzenketa Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen. Foru lege proiektua 2018ko otsailaren 21eko 21. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko apirilaren 9an.

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

1. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

1. artikuluari g) letra gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“g) Ziurtatzea informazio publikoa eskuratu ahalko dela komunikaziorako formatu nagusietan, digitalak, bertaratzekoak nahiz telefono bidezkoak izan”.

Zioak: Herritarrak gero eta sartuago daude formatu digitaletan; halere, herritar guztiengana iristeko beharrezkoak dira leku fisikoak eta, noski, telefonoa.

2. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

2. artikulua 2. apartatua aldatzeko zuzenketa. Testua honako honekin ordeztuko da:

“Zuzenbide administratiboaren menpeko jardura betetzean, langileen ondasunen, kontratazioaren eta diru-laguntzen arloetako jardueri dagokienez, araudi hau Nafarroako Parlamentuari, Kontuen Ganberari, Nafarroako Kontseiluari eta

Nafarroako Arartekoari aplikatuko zaie, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoak erakunde horiei emandako ahalmenak, eginkizunak eta autonomia urratzen ez diren heinean”.

Zioak: Amaieran “eta haietako bakoitzaren gaineko araudia” hitzak kentzen dira, zeren eta legearen beraren aurkako arauak eman bailitezke, funtzionamendu-araudietan hura ez betetzeko.

3. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

3. artikulua aldatzeko zuzenketa. Testua honako honekin ordeztuko da:

“Halaber, foru lege hau honako hauei ere aplikatuko zaie, gardentasuneko eta informazioa eskuratzeko arauari dagokienez:”

Zioak: Gardentasuna informazioa eskuratzeko bezain garrantzitsua da; are gehiago, banaezinak dira. Hori dela eta, uste dugu garrantzitsua dela hori zuzenean jasotzea.

4. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

4. artikuluari j) letra gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“j) Espazio digitala: Informazioa web euskarrian, telefono mugikorren euskarrian edo gaur egun dagoen edo etorkizunean egon daitekeen beste edozeinetan bistaratzeko tokia, gehien erabiltzen dena lehenetsiz”.

Zioak: Ezin dugu jarraitu web-atariak edo web-espazioak hitz egiten jarraitu herritarren % 50

baino gehiagok kontsultak jada weba ez diren beste euskarri batean egiten dituenen.

5. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

5. artikulua k) letra aldatzeko zuzenketa. Testua honako honekin ordeztuko da:

“Arrakala digitala deuseztatzeko printzipioa: Edozein pertsonak informazioa eskuratzeko aukera izanen duela bermatzea, informazioa jasotzen duen bitartekoa edo euskarria foru lege honetan ezarritakoa izan ez dadin betetzeko muga edo eragozpena, segurtatuz, halaber, adinarekin, sexuarekin, ekonomiarekin, estatus sozialarekin, kokapen geografikoarekin, desgaitasunarekin edo hezkuntzarekin lotutako kontuak ez daitezela eragozpena izan informazioa eskuratzeko eskubideaz baliatzeko”.

Zioak: Arrakala digitalak ertz asko ditu, eta euskarriarenaz gainerako guztiak jaso behar dira.

6. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

5. artikulua l) letra gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“l) Lagapen unibertsalaren printzipioa: Foru lege hau zuzen betetzeko aplikazioak garatuko dira berrerabiltzeko moduko ingurune unibertsalean, munduko beste administrazio, entitate edo erakundeek erabili ahal ditzaten, batez ere baliabide gutxiago dituztenek. Halaber, behin garatu ondoren, sustatu egingen dira, eta kasu bada, haiek ezartzeko kontsulta teknikoak eskainiko dira”.

Zioak: Gardentasuna foru erkidegoaren mailan ez ezik, kanpora begira ere baliatu behar da. Filosofia hori mundura eraman behar da, batez ere egoera ahulagoa duten administrazioetara.

7. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

5. artikulua m) letra gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“m) Doakotasunaren printzipioa: Informazioa eskuratzeko eta eskariak egitea, oro har, doakoak

izanen dira, foru lege honen 44. artikuluan jasotako salbuespenekin; kasu horietan, ahaleginak egingen dira kosturik ez izateko, kostu txikiena izateko edo soilik izandako kostu errealean arabera logikoa dena baizik ez izateko”.

Zioak: Doakotasunaren printzipioa ere, gardentasunari buruzko beste lege batzuetan presente dagoena, lehenetsi beharrekoa da.

8. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

1. artikulua 7. apartatua aldatzeko zuzenketa. Testua honako honekin ordeztuko da:

“Betebarra duten subjektuek beharrezkoak diren neurriak hartuko dituzte herritarrei errazteko informazio publikoaren berri izatea. Informazioa betebarra duten subjektuen egoitza elektroniketan eta espazio digitaletan egin behar da publiko, modu argi eta egituratuan eta formatu berrerrabilgarrian”.

Zioak: Definizioetan aipatu dugun bezala, web-guneak iraganeko kontuak dira: web espazioaren kontzeptua zabalagoa da.

9. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

8. artikulua 2. apartatua h) letra gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“h) Zainduko da garapen guztien formatu berrerabilgarriak erabiltzea, estandar unibertsalean oinarrituta”.

Zioak: Norbaitek zaindu behar du elkartasun unibertsalaren printzipio hori, Nafarroan ere hartaz baliatzen baikara.

10. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

8. artikulua 2. apartatua i) letra gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“i) Segurtatzea garapen eta espazio digitalak presente egonen direla herritarrek gehien erabiltzen dituzten formatuetan”.

Zioak: Mundu digitala gero eta azkarrago aldatzen da. Herritarrak dauden tokian egon beharra dago.

11. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

10. artikulua aldatzeko zuzenketa. Testua honako honekin ordeztuko da:

“10. artikulua. Gobernu Irekiaren Espazio Digitala.

1. Nafarroako Gobernuak Interneten duen Espazio Digitalean, Gobernu Irekiaren Atari berrirazkoa garatuko da, software libreko eta berrerabilgarriko plataforma informatiko batean ezarria, eta bertan emanen da argitara Foru Komunitateko Administrazioari eta haren menpeko entitate eta erakundeei buruzko informazioa, atarian berean informazioa jarri edo esteka elektronikoen bidez.

Gobernu Irekiaren Espazio Digitalak bilatzaile bat izanen du, informazioa eskuratzeko bide azkarrak, erraza eta ulergarria izateko, eta eguneratzen diren datuei buruzko alerta-mekanismoak ere jarriko dira bertan.

2. Honako hauetarako gune gisa eratuko da atari hori:

a) Herritarrei aktiboki entzun dakiela eta herritarren eta Administrazio Publikoaren arteko elkarriketa izan dadila sustatzea, haien beharrak identifikatzeko eta jarduketara publikoa haien eskaerara bideratzeko.

b) Herritarrei informazioa denbora errealean eta tratatu gabe ematea, libreki eta dohain partekatuta ahal izan dadin.

c) Datuak herritarren eskura uztea formatu ireki eta berrerabilgarrietan, berrerabil daitezkeen onura publikorako eta, balioa eta aberastasuna sortzeko, informazio horren ondoriozko produktuak lortu nahi dituen edozein pertsonaren onurarako, datuen irekiera edo OpenData izenez ezagutzen diren proiektuetan.

d) Herritarrek gai publikoetan duten parte-hartzea eta inplikazioa bideratzea, Administrazio Publikoaren laguntzaile aritu daitezkeen, prozesuen irekiera edo OpenProcess izenez ezagutzen diren proiektuetan.

3. Gobernu Irekiaren Espazio Digitalak eta sortzen diren espazio digitalek Interneten publizitate aktiboa zabaltzeko plataforma elektronikoen izaera izanen dute, erraz identifikatzeko moduko-

ak izanen dira eta kasuan kasuko administrazio publikoen edo entitateen egoitza elektronikoetarako esteka jaso beharko dute. Horrekin batera, Web Erabilerraztasunerako Ekimenaren gomendioak bete beharko dituzte, desgaitasuna dutenei erabiltzeko aukera eta laguntza emateko, bai eta arrakala digitalaren printzipioa jarraitu ere.

4. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta Nafarroako Toki Administrazioa osatzen duten entitateek beste neurri osagarri eta lankidetzazko batzuk hartzen ahalko dituzte titulu honen II. kapituluari jasotako gardentasun betebeharrak betetzeko”.

Zioak: Definizioetan aipatu dugun bezala, web-guneak eta atariak iraganeko kontuak dira: espazio digitalaren kontzeptua zabalagoa da. Halaber, “berrerabilgarria” hitza gehitzen da formatu irekiak aipatzen direnean, zeren eta formatua irekia izateak ez baitakar nahitaz berrerabilgarria izatea.

12. ZUZENKETA

GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA, ETA PODEMOS-AHAL DUGU TALDE PARLAMENTARIOEK ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

11.2. artikuluen c), d) eta e) apartatuak aldatzeko zuzenketa. Honela geratuko da testua:

c) Kontratu, hitzarmen eta diru-laguntzei buruzko informazioa argitaratuta egonen da haietatik heldu diren betebeharrak irauten duten bitartean eta, gutxienez ere, haiek amaitu eta beste hamar urtez.

d) Informazio ekonomikoa sortu zen unetik kontatzen hasi eta gutxienez ere hamar urtez egonen da argitaratuta.

e) Ingurumen eta hirigintza arloko informazioa, indarra duen bitartean, eta indarra galtzen duenetik beste hamar urtez, gutxienez.

Zioak: 11.2 artikuluen c), d) eta e) apartatuetan ezarritako kasuetan, hamar urtera luzatzen da informazio horrek argitaratuta egon behar duen epea.

13. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

16. artikuluen 8. apartatuari f) letra gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“f) Gardentasunaren eta beste administrazio eta erakunde nazionaletan eta nazioartekoetan informazioa eskuratzeko printzipioak sustatzea, kode irekia eta haren azalpena eskuratzeko erraztuz”.

Zioak: Gardentasunean elkartasun-printzipioa sustatzea.

14. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

16. artikulua 8. apartatuari g) letra gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“g) Aberastasun ekonomiko, kultural edo soziala sortzea, informazioa emanaz kultura, enpresa, ekintzailtza sozial edo beste edozein jarduera bihurtu ahal izateko”.

Zioak: Berrerabiltzeak sortzen duen gisa askotako aberastasuna mugagabea da.

15. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

17. artikulua 1. paragrafo bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Sustatuko da datu horiek guztiak eremu zientifikoko nazioarteko datu-baseetan sar daitezen, eta ikerketak, ponentziak, artikulua eta abarreak egiteko eskura jarriko dira; eta bultzatu eta sustatuko da, halaber, enpresak, erakundeak eta foru organismoak datu-base horietara sar daitezela”.

Zioak: Ikerketa zientifikoko nazioarteko sareak informazio-iturri mugagabe bat dira, gero eta garrantzi handiagoa dutenak, berehala eta erraz eskura daitezkeelako.

16. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

9. artikulua 22. apartatua aldatzeko zuzenketa. Testua honako honekin ordeztuko da:

“Publizitate, sustapen, komunikazio instituzional, irudi, iragarki edo beste edozein formatu duten kanpainetan egindako edozein gastu, xehakatzuz plangintza-irizpideak, hautatutako euskarria, exekuzio-aldia eta kanpainaren kontzeptu desberdinak, bai eta hedabide bakoitzarekin kontratatuta-

ko zenbatekoa ere, eta haren eragin zenbatetsiari eta kanpainaren emaitzei buruz informatuz”.

Zioak: Publizitatea gai oso sentibera da eta, lege propio bat merezi duen arren, hasteko legean gardentasuna baino zerbait gehiago nabarmendu beharra dago.

17. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

27. artikulua 2. apartatuaren f) letra aldatzeko zuzenketa. Testua honako honekin ordeztuko da:

“f) Telefono mugikor korporatiboen zerrenda, zein kargudunenak diren eta zein modelotakoak diren aipatuz”.

Zioak: Telefonoen zerrenda bat edukitzeak gutxi balio du ez baldin badakigu Administrazioako zein titulak edo kargudunek eskuratzen dituzten; ez da beharrezkoa izanen titularraren izena jar-tzea, aldakorra baita.

18. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

27. artikulua 2. apartatuari j) letra gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“j) Etxe partikularretan instalatuta dauden Interneteko konexioko lineen, telefono finkoko lineen edo bestelako komunikazio-dispositiboen zerrenda”.

Zioak: Batzuetan dispositibo horiek etxe partikularretan instalatu dira, eta justifikatu egin behar-ko da hori.

19. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

34. artikulua 2. apartatuko b) letra aldatzeko zuzenketa. Testua honako honekin ordeztuko da:

“b) Eskatzen den informazioa”.

Zioak: Kanariar Uharteetako Gardentasunari eta Informazioa Eskuratzeari buruzko Legearen artikulua asko hitzez hitz kopiatu direnez gero, ez dugu ulertzen aurreproiektuan eskatzea testu gehiago sar dadila, gardentasunaren atea itxi dezaketen gai “zehatzagoekin”.

20. ZUZENKETA**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

34. artikuluari 6. apartatua gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“6. Eskaria ahoz egiten denean, dela unitate erantzuleen aurrean agertuz, dela informazio-bulegoetan edo telefono bidezko komunikazioaren bitartez, hura formatu elektronikoa jasoko da, eta aurreko apartatuan aipatutako xehetasunak jaso beharko dira. Horri buruzko ziurtagiri bat emanen zaio eskatzaileari”.

Zioak: Lege-aurreproiektuan aurreikusita zegoen hori. Eskubide Sozialetako Departamentuak “zalantzak planteatzen ditu informazio publikoaren eskariak telefonozko komunikazioaren bidez egiteko aukera errealari buruz”. Kanariar Uharteetako abenduaren 26ko 12/2014 Legearen 41.2 artikulua eta Aragoiko martxoaren 25eko 8/2015 Legearen 27.3 artikulua, biak ere administrazio autonomikoan, toki-administrazioan eta unibertsitate-administrazioan aplikatzekoak, horixe jasotzen dute. Erredakzioa berbera da bi artikuluetan, baina salbuespena da Aragoikoak, gainera, ziurtagiria aurkezteko betebeharra ezartzen duela.

21. ZUZENKETA**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

37 artikulua f) letra kentzeko zuzenketa. Honako testu hau kentzea proposatzen da:

“f) Izaera lagungarria edo sostengukoa duen informazioari buruzkoak, hala nola hauetan jasotakoa: oharretan, zirriborroetan, iritzietan, barneko erabilerako laburpenetan edo barne komunikazioetan, garrantzi edo interes publikorik gabeak. Ez dira izaera lagungarri edo sostengukotzat hartuko txosten juridikoak, teknikoak, ekonomikoak edo bestelakoak, espedientearen parte badira edo ebazpenekin edo beste egintza administratibo batzuekin lotura badute”.

Zioak: Kultura anglosaxoian hori kentzen hasi da. Egokitu egin beharko gara. Nafarroako Parlamentuan jada horri buruzko eztabaida izan zen; gure ustez informazio publikoaren zati bat da hori.

22. ZUZENKETA**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,
ETA PODEMOS-AHAL DUGU
TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

41. artikulua 4. apartatua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Isiltasun administratibo positiboa ezartzen da toki entitateentzat, artikulua bearen 2. apartatuan aurreikusitakoarekin bat; izan ere, horrek isiltasun administratibo positiboa aurreikusten du Administrazioarentzat.

23. ZUZENKETA**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

42. artikulua 6. apartatua kentzeko zuzenketa. Honako testu hau kentzea proposatzen da:

“6. Nolanahi ere, Nafarroako Parlamentuak, Nafarroako Arartekoak, Kontuen Ganberak eta Nafarroako Kontseiluak emandako ebazpenen kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsioa baidarik ez da aurkezten ahalko”.

Zioak: Ez dago interes publikoko inongo arrazoirik salbuespen hori legitimatzen duenik.

Erakundeak Gardentasunaren Legeari lotuta badaude Zuzenbide Administrazioari lotutako jarduerari, ondazunei, kontratazioari eta diru-laguntzei dagokienez, herritarrek (goi mailako hautetsiak barne) aukera eduki beharko lukete erreklamazio bat beren borondatez modu arin eta doakoan aurkeztu ahal izateko Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluan, beren burua behartuta eduki beharrean erabakia onartzera edo hain mantsoa den eta, gainera, kostuak ordaintzeko kondena ekar dezakeen administrazioarekiko auzi-errekurtsioaren bidera jotzera.

Gaur egun, bi instantzia horietan informazioa eskuratzearen arloko errekurtsio baten batez besteko kostua 3.000 euro ingurukoa da, eta 18 eta 24 hilabete bitarte behar dira epai irmoa lortzeko.

24. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,
ETA PODEMOS-AHAL DUGU
TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

52. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela geratuko da testua:

“52. artikulua. Interes taldeak

Foru lege honen ondorioetarako, interes taldeztat joko dira, edozein estatutu juridiko izanik ere, jarduerak Nafarroan betetzen dituzten erakunde edo pertsonak, profesionalki, jarduera osoan edo zati batean, hauetan aritzen direnak: araugintzako politikak edo arau-xedapenak egiteko prozesuetan eragitea, zuzenean nahiz zeharka, edo horien aplikazioan, edo erabakiak hartzean, norbere interesak, hirugarrenenak edo erakundeenak edo interes orokorrak ere defendatuz; hori, halere ez da eragozpena izanen biltzeko eta informazioa eskuratzeko edo eskariak egiteko banakako eskubideez baliatzeko.

Era berean, interes taldeak dira plataformak, sareak edo jarduera kolektiboko beste modu batzuk, nortasun juridikorik izan gabe ere, eragin-iturri antolatua direnean eta Erregistroaren aplikazio-esparruan sartutako jarduerak betetzen dituztenean”.

Zioak: Biltzeko eta informazioa eskuratzeko edo eskariak egiteko banakako eskubideen baliatzea babestu behar da.

25. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,
ETA PODEMOS-AHAL DUGU
TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

53. artikuluan 1. apartatua aldatzeko zuzenketa. Honela geratuko da testua:

“1. Nafarroako Foru Komunitatearen eta 5.000 biztanletik gora dituzten toki entitateen eremuan, Interes Taldeen Erregistro Publiko bat sortuko da —eta hartan nahitaez inskribatu beharko dute foru lege honen 52. artikuluan aipatzen diren subjektu, erakunde eta enteek—, haren aurrean betetako jarduera guztien identifikazioa eta kontrola errazteko, erabilitako bidea edo bitartekoa edozein dela ere.

Zioak: Interes taldeen erregulazioaren aplikazioa 5.000 biztanletik gorako toki entitateetara zabaltzen da.

Erregistroko inskripzioaren etetearen eta deuseztatzearen ondorioak eta eraginak zehazten dira.

26. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

1. artikuluan 53. apartatua aldatzeko zuzenketa. Testua honako honekin ordeztuko da:

“1. Nafarroako Foru Komunitatearen eta 100.000 biztanletik gorako udalerrien esparruan Interes Taldeen Erregistro Publiko bat sortuko da, haren aurrean betetako jarduera guztien identifikazioa eta kontrola errazteko, erabilitako bidea edo bitartekoa edozein dela ere”.

Zioak: Nafarroako hiriburuko udal administrazioak interes taldeak kontuan hartzeko behar beste tamaina badu.

27. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,
ETA PODEMOS-AHAL DUGU
TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

58. artikuluari testua gehitzeko zuzenketa. 4. apartatua gehituko da. Honako testua izanen du:

“4. Erregistroko inskripzioaren eteteak eta deuseztatzeak berekin dakarte ukitutako pertsonak eta, kasua bada, haiek partaide direneko erakundeek eskuragarri ez izatea erakundeen eta organismo publikoen bulego eta zerbitzuetarako sarbidea, eta zehapena Erregistroan argitaratzea”.

Zioak: Zehaztu egin behar dira erregistroko inskripzioaren etetearen eta deuseztatzearen ondorioak eta eraginak.

28. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

64. artikuluan 1. apartatuari a) eta b) letrak gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“a) Arau-hauste astunak edo oso astunak egiteagatik, ez betetzearen deklarazioa eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

b) Arau-hauste arinak egiteagatik, ohartarazpena”.

Zioak: Gaur egun, zehapen horiek ez daude aurreikusita ez gardentasunari buruzko legearen proiektuan, ez eta Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bateratua onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuan ere.

Horrenbestez, komenigarria litzateke zehapenak zehaztea, goi-karguetarako egiten den bezala; bestela, langile publikoei ezin izanen zaie zehapenik ezarri. Operatiboena da haiek gardentasunari buruzko lege proiektu batean zehaztea, 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua aldatzeko etorkizuneko aurreproiektu baten zain egon beharrean.

29. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

64.2. artikulua aldatzeko zuzenketa.

Honako hau dioen tokian: “aplikatuko dira”

Honako hau esan behar du: “aplikatzen ahalko dira”

Zioak: Zehapena ezartzen duen organoaren irizpidearen araberakoa izatea.

30. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

64.2. artikulua aldatzeko zuzenketa.

Honako hau dioen tokian: b. “600 eta 6.000 euro arteko isuna”.

Honako hau esan behar du: b. “600 euro arteko isuna”.

Zioak: 6.000 euroko kopurua gehiegizkoa iruditzen zaigu.

31. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

65.1 artikulua 1. apartatua kentzeko zuzenketa.

Honako hau dioen tokian: “6.001 eta 12.000 euro arteko isuna”.

Zioak: Gure ustez nahikoa da gainerako zehapenekin.

32. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

65.1.b) Lehena artikulua kentzeko zuzenketa.

Honako hau dioen tokian: “600 eta 6.000 euro arteko isuna.

Zioak: Gure ustez nahikoa da gainerako zehapenekin.

33. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

67. artikulua aldatzeko zuzenketa. Testua honako honekin ordeztuko da:

“67. artikulua. Zehatzeko ahalmena.

1. Diziplina-zehapenak ezartzeko eskumena Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluari egokitu zaio.

2. Arau-haustek Foru Komunitateko Administrazio eta menpeko erakunde eta entitateetako goi kargudunei eta zuzendaritzako langileei egoztekoak direnean, eskumena, halaber, Gardentasunaren Kontseiluarena izanen da, betiere kontuan hartuta titularrek Nafarroako Gobernuo kideen eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio goi-kargudunen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legearen 19. artikuluan xedatutakoari buruz duten iritzia, bertan ezartzen baitira zehapen ahalmenaren titular diren organoak.

3. Erantzulea pertsona edo entitate pribatu bat denean, funts publikoen kargura jasotzen dituen laguntzak edo diru-laguntzak edo sektore publikoarekin dituen kontratuak edo hitzarmenak direla eta informazioa eman beharra duena, eskumena Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluarena izanen da, eta kontseilu horrek helaraziko dio diziplina-zehapenak ezartzeko proposamena diru-laguntza edo laguntza ematen duen edo kontratua edo hitzarmena izenpetua duen departamentuko titularri.

Diru-laguntza edo laguntza publikoak departamentu batekoak baino gehiagokoak direnean, edo kontratua entitate batzuen artean izenpetzen

denean, zenbateko handiena eman duen edo prestazioetan edo prezioan zama handiena bere gain hartzen duen departamentuko titularrak izanen da eskuduna.

Informazioa emateko betebeharrak dagozkion eginkizun edo ahalmen publikoen ondorioa denean, horiek zein arlotan betetzen diren, arlo horretako departamentuko titularrak izanen da eskuduna.

4. Erantzulea pertsona fisiko edo juridiko bat denean, foru lege honetan aurreikusitako betebeharrak benetan betetzeko beharrezkoa den informazioa Administrazioari emateko betebeharrak dela eta, Nafarroako Gardentasunaren Kontseilua izanen da eskuduna, eta diziplina-zehapenak ezartzeko proposamena helaraziko dio informazioa zer departamenturi eman behar dion, departamentu horretako titularrak.

Zioak: Zehapenak ezartzeko ahalmena legearen aurreproiektuan Administrazioari berari edo araua hausten zuen entitateari ematen zitzaion. Gardentasunari buruzko Legearen arau-hausteak zehatzeko prozedurak ireki eta ebazteko erakunde eskuduna ezin da izan ez-betetzearen erantzukizuna duen Administrazioa bera. Arau-hausteen eta zehapenen araubidea ez da aplikatuko, paper bustia bilakatuko da. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluak izan behar du zehapen- eta diziplina-prozedurak irekitzeko, instruitzeko eta ebazteko erakunde eskuduna.

Gure iritziz, haren egiazko independentzia aitortzeko modurik onena eginkizun oso garrantzitsu hori ematea da.

34. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Bigarren xedapen gehigarriaren 1. apartatua aldatzeko zuzenketa. Testua honako honekin ordeztuko da:

“Bigarren xedapen gehigarri honen 2. atalean xedatutakoa ukatu gabe, I. tituluaren aplikazio esparruan sartutako entitateek behar diren neurriak hartuko dituzte foru lege honetan publizitate aktiborako aurreikusitako betebeharrak berriek eragindako informazioa eskura egon dadin dagokion espazio digitalean sei hilabeteko gehieneko epean, foru lege honek indarra hartzen duen egunetik aurrera”.

Zioak: Egungo legearen heldutasuna dela eta, ezin da hainbeste itxaron.

35. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko foru lege proposamen osoan aldaketa egiteko proposamena. Testua honako honekin ordeztuko da:

“Web-ataria”, “web-orria”, “web” edo antzekoen ordezkari, “espazio digitalak” esapidea erabiliko da lege osoan.

Zioak: Lengoia garaietara egokitu beharra dago. “Ataria” esapidea XX. mendearen amaierakoa da, Altavista, Yahoo!, Terra, Olé, Ozú eta abar agertzearekin erabiltzen hasi zena.

36. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Zioen azalpenaren II. apartatua aldatzeko zuzenketa. Bigarren paragrafoaren testuren ordezkari hau jartzea nahi da:

“Foru lege honek arau-esparru bat eratzen du, administrazioak eta haien arduradunak, herritarrekiko harremanetarako, behartu behar dituena. Parte-hartze demokratikoari buruzko foru lege berriarekin batera, beste arau hauek ere esparru hori osatzen dute: Kontu Irekiei buruzko azaroaren 11ko 16/2016 Foru Legea, Gobernu Onerako Kode bat ezartzen duen martxoaren 17ko 2/2011 Foru Legea gaindituko duen Kode Etiko berri bat, eta Nafarroako Gobernuaren kideen eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari goi-kargudunen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legea”.

Zioak: “administrazioentzat eta haien arduradunentzat inspirazio iturri izan dadin herritarrekiko harremanetarako” hitzen ordezkari, honako hauek erabiliko dira: “administrazioak eta haien arduradunak, herritarrekiko harremanetarako, behartu behar dituena”. Arrazoia da gardentasunaren arloan “inspirazio-iturria” izatearen garaia iragan dela.

Foru Lege proiektua, irisgarritasun unibertsalari buruzkoa.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko apirilaren 11n egindako bilkuran, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

Nuria Media Santos andreak eskatu du irisgarritasun unibertsalari buruzko Foru Lege proiektuari zuzenketak aurkezteko epea luzatzea.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 108. artikularekin bat, honako hau ERABAKI DA:

1. Irisgarritasun unibertsalari buruzko Foru Lege proiektuari zuzenketak aurkezteko epea

2018ko apirilaren 26ko eguerdiko hamabiak arte luzatzea. Aipatu foru lege proiektua 2018ko martxoaren 16ko 33. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2018ko apirilaren 11n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

